








Juan Angel Aretxabaletak eta Jose María Salbidegoitiak egina.



LEIOA 1526

1526 aldean, Leioa Erandiotik bereizitako parrokia eta elizate gisa eratu zen urtean, padurak ibaien behe-ibilgu eta erreketaraino iritsen ziren. Ez zegoen baserri askorik eta oso sakabanaturik zeuden, baina apurka-apurka eremu honetako erlijio-guneen inguruan batu ziren eta auzuneak osatu zituzten. Bertan, nekazaritzaren osagarri, beste jarduera ekonomiko batzuk garatzen hasi ziren.

-  Jatorriko baserriak
-  Aintzineko erlijio-zentroak
-  Ekonomi zentroak
-  Padurak



Juan Angel Aretxabaletak eta Jose Maria Salbidegoitiak egina.



LEIOA 1780

XVIII. mendearen amaiera aldean, demografiaren hazkundearen eraginez, baserrien kopurua handitu zen auzuneetan, eta horiek gero eta garrantzitsuagoak izan ziren. Auzuneak bide-sarearen bitartez loturik zeuden, eta gero eta bide gehiago egiten zen. Aldi berean, Bilbo hiriko merkataritza oparoaldia zela eta, itsasadarra ubidetzeko lehen obrak egin ziren.

	Auzo garrantzitsuenak
	Jatorriko baserriak
	Erlijio zentroak
	Bideak
	Itsasadarra bideratzeko kaiak
	Zubiak
	Padurak



Juan Angel Aretxabaletak eta Jose María Salbidegoitiak egina.



LEIOA 1900

XIX. mendearen amaieratik aurrera, Leioako paisaia goitik behera aldatu zen. Lamiakon eraiki zituzten lehen lantegiek langile asko erakarri zituen Leioara. Hainbat solaituko eraikinak altxatu zituzten eta itsasadarraren ondoko aldea oso bestelakotu zen, Leioako lur garaien aldean. Han goian, baserriak nagusi ziren, eta landa-eremua osatzen zuten. Biztanleria, industriak eta eraikin berriak aniztu zirenez, zerbitzu hobeak behar ziren: ikastetxeek, parrokia berriak eta, batik bat, trenbideak, beste itxura bat eman zioten paisaiari.



Baserri eta eraikuntzak.



Erlijio tokiak, hezkuntza tokiak eta erakundeetako egoitzak.



Industri eraikuntzak.



Bideak.



Bilbotik-Areetako lurrin-trena.









Juan Angel Aretxabaletak eta Jose María Salbidegoitiak egina.



LEIOA 1950

1900 inguruan hasitako aldaketak biziagotu ziren 50eko hamarkadan. Leioako auzune batzuetan, baserriak galdu eta etxebizitza-multzoak eraiki zituzten haien gainean. Ekipamendu berriek, lantegi gehiagok eta komunikabide berriek funtsatu zuten handik urte batzuetara gertatu eta gaurko Leioak duen itxura ekarri zion aldaketa handia.

LANTZUBO	
	Baserri eta eraikuntzak.
	Erlijio tokiak, hezkuntza tokiak eta erakundeetako egoitzak.
	Industri eraikuntzak.
	Bideak.
	Bilbotik-Plentziarako tren.
	Errepide garrantzitsuenak.